



# ETXEKO LANAK ONDO BETETA HELDU DA IRURA

Gaur izango da Kilometroen jaialdia; milaka lagun espero dituzte; boluntarioek azken ukituak eman zituzten atzo »5

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Igandea  
2008-10-05

VIURTEA 1.526.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Kalte material handiak eragin ditu epaitegian eztanda egin duen bonbak

**TOLOSA** Leherketa gertatu baino 30 minutu lehenago DYAk dei bat jaso zuen ETAre izenean; ez zen inor zauritu

**GAITZESPENA** Udalbatza: «Bere izenean eta herritarren ordezkari bezala guztiz gaitzesten du eraso terrorista» 4



Hiru metro diametroko zuloa eragin zuen bonbak Tolosako epaitegian. E EZEIZA



Itxialdiaren ostean elkarretaratzea egin zuten udaletxe kanpoan. NL

### «Salbuespen egoerari stop» esan diote eskualdean, itxialdiak eginez

**TOLOSALDEA** Adunan, Villabonan, Anoetan, Leaburun eta Tolosan egin dituzte 6



# EGUZKILORE

www.eguzkilorejya.com

Ezabuzki

DONOSTIAN Heramni 13, Alderdi Eder Tel. 943 43 15 58  
GALDACAON eta AMOREBILIAN Tel. 94 673 18 31



## Freskoari aurre egiteko... saltoka

**UGARTE** » Ugarteko festetako azken eguna gaurkoa da, baina horregatik ez da okerragoa izango, *Ingurutxo*-rekin eta harri-jasotzaileekin, besteak beste. Herenegungo afarian ia 100 lagun bildu ziren plazan. Hotza

pasa bazuten ere, ederki afaldu zuten, eta Toka Txapelketan Amezketako Nerea aritu zen hobekien. Atzo haurrek goizean eta arratsaldean puzgarrietan gozatu ahal izan zuten (irudian). N. URBIZU

## S Soka motzean

### «Hegoaldeko jaietan jende gehiago ezagutzen da»

**ALBERTO BALLESTEROS** »

Tolosan tabernaria

**NEREA URBIZU**

Ciudad Rodrigo (Gaztela Leon, Espainia) jaioa, 1989. urtean.

**Euskaraz ikasi zenituen lehen hitzak zein izan dira?**

«Maite zaitut».

**Esan euskaraz dakizkizun hitz gehiago.**

«Bai», «tori», «solomoa»... Oso gutxi dakit, eta hitz egiteak lotsa ematen dit.

**Tabernan beharrezkoa ikusten duzu euskara jakitea?**

Beharrezkoa ez, baina ondo etorriko litzatekeela bai.

**Ikasteko asmorik?**

Amorrua ematen dit jendeak esatea ikasi behar dudala.

**Zer moduz tabernako lanean?**

Ondo. Aurretik ere aritu naiz, Ordizian.

**Eskatu dizuten gauzarik arraroena?**

Garagardoa izotzarekin, ardoa izotzarekin, garagardoa cocacolarekin...

**Zer da Euskal Herrian gehien gustatzen zaizuna?**

Txakolina gustatzen zait.

**Eta gutxien?**

Festa ez zait asko gustatzen. Hegoaldean hobe pasatzen dut, jendearekin asko tratatzen da eta jende asko ezagutzen duzu, emakumeak ere bai. Hemen koadriletan ibiltzarekin ez da giro berdina. Gainera, oso garestia da hemen dena.



N. URBIZU

## B Blogteka info

### Elkarrizketan erderara pasatzen garenean

Euskaldun askok dugun ohitura baten eraginak azalduko ditugu. Egoera berezia da baina euskaraz ari garenean behin eta berriro erdarara pasatzen garenean ez gara konturatzen geure burua murrizten ari garela:

1-Euskal hiztunentzako eredu txarra delako.

2-Norberaren burua nahasian azaltzen dugulako.

3-Etorri berriei euskara beretzat ez dela adieraztera ematen diogulako.

4-Ulertzen ez dutenei euskara ikastea beharrezkoa ez dela esaten ari garelako.

5-Euskara duintasunik gabe azaltzen dalako.

6-Euskaldun berriei gaztelerara pasatzen garenean beraiek euskaraz gaizki ari direla ulertarazten diegulako.

Guztiak azken finean euskararen erabilera murrizten du; ez al du merezi honek unetxo batez pentsatzea?

Findu zure belarria eta entzuzun zaitez.

### Aupa Kirikiño

Kirikino eta Sendotza inguruko taldeak prest daude. Asteburu honetan Nafarroako Iratxe eta herrixkan bildu dira begirale guztiak elkarrekin urtea planifikatzeko: helburuak, taldeak, zerrendak, data garrantzitsuak, ekintzak (...)

Larunbat goiza formazioarako utzi zuten. Goizean zehar nolokoa izan behar duen gure taldeko begiralea aztertu zuten eta zein ezagarrri edukitzea nahi dugun. Bazkaldu ondoren elkarrekin urteko helburuak eta puntu garrantzitsuenak finkatzen aritu ziren eta merienda ondoren zirkloa bildu ziren haur talde bakoitzaren zehaztasunak eta plangintza antolatzeko. Gauean berriz, lan mardula egin ondoren, jolasteari ekin zioten eta lau taldetan jarrita antzerkigintzan, dantzan, abestian eta abarren igaro zituzten orduak.

Igande goiza lasaiagoa izan zen. Eukaristia ospatu eta etxea txukundu. Egun honetan ere agur berezia eman zieten gure taldea uzten duten begiraleei, zenbait urte gure artean igaro ondoren beraien lanarengatik eskerrak eman zitzaizkien. Eta, nola ez, harrera berezia ere egin zitzaizkien aurren hasten diren begirale berriei (...)

**Hirukide ikastetxea**

<http://www.tolosaldekohitza.info/>

blogak/hirukide

## «Garai oparoan» gaudela igerri da azokan, berrikuntza ugarirekin

**Azoka** » Salmenta kopurua ez zen makala izan atzo eta mizpiradiak eta hiruskina sagarrak ikusi ahal izan ziren.

**PABLO ALBERDI**

Atzoko azoka eguna oso animosoa suertatu zen, eta goizaren bukaera aldera salmenta kopurua ez zen makala izan. Oso garai onean, oparoan gaude orain, eta atzo ere berrikuntza dezente ikusi ahal izan genituen.

Aurtengo lehenengo mizpiradiak eta hiruskina sagarrak ikusi genituen; Tolosako babarruna ere nobebade bezela aurkeztu zen; bertako kuletro eta onddo bakarren batzuk ikusi ahal izan genituen, eta dirudienez datorren asterako ugaritu egingo dira.

Datorren astean ere aurtengo lehenengo urra berriak ikusiko ditugu, eta antza denez, barazkien artean ere izango dira berrikuntzak.

### » ATZOKO AZOKA

**BERDURA PLAZA** Merk. Gares.

**Landareak**

Erromero	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Surfinia	2,40	-

**BERTAKO PRODUKTUAK**

**Perretxikoak**

Kuletroa	30,00	-
Ziza horia	24,00	30,00
Onddoa	14,00	24,00

**Fruta**

Udarea	1,50	-
Perlestina	1,50	-
Errezil sagarra	1,00	-

**Barazkiak**

Baba	3,00	4,00
Babarrun zuria	8,00	-
Ibarrako piparra	4,00	7,00
Tomatea	2,00	4,00

**PRODUKTU EKOLOGIKOAK**

**Fruta**

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00

**Barazkiak**

Kalabaza	1,60	3,04
Baratzuria	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-
Txitxirioak	2,40	-

# FUNERARIA VASCONGADA

EHORZKETAK

## 902 402 900

zerbitzu iraunkorra

**BULEGOAK:** Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)



## » Hitzalean

**Mikel Olano**

(Leitza, 1968) Miqueoloako Ibrahim, berak eman baitzidan izenburua

**K**ontua da gizon hura eta bi urteko umea kalean eskutik helduta zihozazela, liburu dendaren parera iritsi ziren arte. Hura izaten zuten geltoki arratsaldero paseoa. Haurrak, antza, leihorearen kontra ipinitako panpinekin kirik egiten ziotela uste zuten, eta ez zegoen hura handik mugiarazterik, panpinekin hitzaspertu bat egin gabe. Aitak buruz zekizkien semearen arrazoi ulertezin guztiak, eta, haietxek entzun bitartean, liburu azalei begiratzen zien, argitara berriei batik batik, irtenbiderik gabeko labirintoak balira bezala. Baziren bi urte liburu osorik irakurri ez zuela. Lekutan zeuden, lekutan, emaztearen larru arteko irakurketa apasionatu haiek, sekulako denbora guztia maingirearen lau metro koadroan pausatzen zirenekoak.

«Gauza ederra litzateke liburu onak erosteak», leitu zion aspalidian Schopenhauerri, «aldi berean liburu horiek irakurtzeko denbora erosterik balego».

Baina irakurraldiak lekutan bazezuden, zer esan idaztaldiez? Noiz helduko ote zion, izan ere, xehe-xehe gogoratzen zuten nobelaren idazketa arretatsuari? Noizko erditu, errealismo gordinez labankatuak irudikatzen zituen narrazio labur haiek? Ez zirudien berehalako izango zenik. Nolanahi ere, bien bitartean, Sarriandian gomendioak kontsolatuko zuten:

«Edukikako guztia galdu duzu, eduki ahal den baino gehiago zenuelako benetan, eta hala ere jakingo duzu izan daitekeen gauzarik behinena izango duzula oraindik, denbora».

—Agur! —esan zien, halako batean, haurrak panpinei. Trapuzko irudiek inoiz baino zoriontsuago ziruditen, beso eta irribarre zabalik, haurra azkanean aitari begira jarri zenean. Eta aitak ez zuen kalearen beste aldera igarotzeko aukerarik galdu.

Errepidean auto ilara luzea zebilen, zein baino zein erosketa zama handiagoarekin. Orduantxe konturatu zen, baina artean ez: sargoriak bestela pentsarazten bazuen ere, neguan sartu berriak zeuden.

Han, kalearen beste aldeko espaloian, eskazale bat urteroko auklik publikoan zegoen, fardeletik gauzak ateratzen eta kartoitzat batzuk ohatzearen posturan antolatzen. Poliki ari zen, bere kargamantu zarpaila lekutzeko negu guztia beharko balu bezala. «Denboraren funtsa», zioen Bukows-

kek, arlote handi hark, «xahutua izatea da».

Eskazalearen ikuskizuna urteroko paisaia moduko bat zen, hala nola ziren kurriloen hegaldia, berokien eta aterkien loratzea edota arbolen biluztea. Gizonak erruki handirik gabe begiratu zion bankuko arloteari, eta errepedea zeharkatu ondoren, hiriko geografian beste edozein sorkari baztergarri bezala saihestu zuen. Azken unean baino ez zitzaion bururatu, arrazoi jakinik gabe, hizpide ematea.

—Tori —esan zion, txanponen

Haurra bat-batean geldiarazi eta atzerantz begiratu zuen.

—Zer diozu?

—Ea zenbat behar duzun... —gaineratu zuen arloteak, kartoia bankuaren gainean zelaitu eta haren gainean eseriz. Ez zirudien inolako eritasunik zuenik, adar jotzea eritasunen baten sintomatza hartzen ez bada bederen.

—Zenbat?

—Hogeita lau orduren mailegua egiten ahal dizut —esan zion arloteak—, edo sei hilekoarena; bi urte arteko eskaintza egiten ahal nizu-ke gehienez, baina denboraren

bezain gozo eta iragankor begitnantzen baitzaizu.

«Ahanztura une oro hasten da», irakurri zion behin Gil Berari. «Hasieran, ez dirudi ahanztura, denbora baizik. Ahanztura zela ohartzen garenerako, ez dago denborarik».

Eguberriak igaro ziren, eta haiekin negua, geroago udaberria, baita \_hurbiletik begiratzen zaion trenaren antzeko abailan\_ urte osoa ere, eta haren ondoren beste hiruzpalau urte joan ziren. Ordu-ara arte gizon hura \_Eguberri bezepera zen\_ ez zen berriro bankuko



bat eskaini—. Ez al da gauza bixia? Zuk falta duzuna nik sobera daukat, eta zuk sobera duzuna, berri, nik falta.

Esaldiak ustekabeen harrapatu zuten eskazalea, emaileek arruntean ez baitzioten limosnari doako iruzkinik erantzen, baina bat-bateko zerbait asmatzeko bezain zalu ibili zen.

—Denbora faltan zabilzala esan nahi duzu?

—Jakina —erantzun zion gizonak, eskutik heltzen zion haurraren ganako keinu eginez—, zu jateko faltan bezalatsu.

—Ez pentsa —esan zuen arloteak, eskuarekin kalpar koipetsua igurtziz—, ogi kozkor batekin aski izaten dut, edatekorik izanez gero.

Eskazaleari irribarre doi egin ondoren, gizonak martxari heldu zion berriro. Nork jakin? Aditua zuenez, eskazale gehienak eskizofreniak jota egoten ziren. Nola jokatu ote zuen hark? Auskalo. Akaso umearengana oldarrean jo edo beste zernahi trastekeria egongo zuen.

—Zenbat behar duzu? —entzun zuen orduan atzealdetik.

gutxi-askoak ez dio erasango interese mailari...

—Zein interes maila darabilzu, bada? —galdu zuen gizonak. Hurrezkeri ez zegoen arlotearen jokoan sartu beste irtenbiderik. Dibertigarria izan zitekeen, gainera, osteratxo bat egitea errealitatearen bizkar zabalaren bestaldean.

—Letra larriz esango dizut, ez baitzait nire bezeroak gainazteaz gustatzen: ahalik eta interes tiporik altuena ezarriko dizut.

—Ongi da —erabaki zuen gizonak, bihotzean ezin kabitu zitzaion barremurrizta disimulatuz—, bi urteren mailegua hartuko dizut. Gauzak horrela, aski denbora izango dut biharretik biharra uzten ari naizen eleberriri heltzeko. Eta gero geroakoak.

Artean inori egin gabeko aitor-kizuna gizon zarpail hari egitea, gauza naturala izan zen, bortsarik gabe atera zitzaion. Izan ere, bere burua beste lekukorik ez izatea bezalatsu zen. Sarritan lasago jotzen duzu ezegagunekin edo ezagutu berriekin, aspaldiko adiskideekin baino, jende ezegagunaren oroimena martxoko elurra

arlotearen aurrean paratzera usartu.

Bitarte hartan guztian haurraren zaintzan jarraitu zuen, eta umeari natura ezagutarazten igarotako egunek eta ibilitako bideek oroitzen ahazteazina utzi zioten. Haurra azkar hazten ari zen, eta buru argia adierazten zuen, gainera, bere gaztetasan gorrian. Uda bidean, bailarako mendizerraren gailurretan zebiltzala, aitak pensalari zailduen gogoetak helarazten zizkion, umeari ulerkaitz egingo ote zitzaizkion kezkatu gabe. Egun batean, bailara osoa menpe zuen tontorrean zeudela, zerumugarantz begiratu eta Oteizaren definizio hau adierazi zion:

«Denbora, Espazioaren inkurbazioan ikusten ez dugun espazioa da

zerumugaren beste aldean Denbora da, denbora

Espaziotik ihesi doa, ikusten ez dugun Espazioa da (eta estetiki, Espazioarekin, Denbora desagertarazten dugu)».

Gure gizonak denboraren gaineko intuizio eta ulermodu laxoak erabiltzen jarraitzen zuen.

Ezin esango dugu irakurketa erlatibistak egiten zituenik, baina potetek ez zioten behintzat larritasunez bizitzeko gomendiorik egin, eta, hortaz, artean ez zuen behin batez aginduriko eleberririk hari heltzeko ausardiarik aski bildu. Beste mendialdi batean, semearekin batera udazken betekogiroan zihozala, erreka, zelai eta muino nekatuak Patziku Perurenaren lezio zahar bat orotarazi zioten:

«Begira, urtxori horri, ez daki gaur igande denik euskaraz.

Begira, borda zahar horri, ez daki XXI. mendekoa denik.

Begira, harrikoxkor honi, Harri Aroa zer den jakin gabe.

Begira, erloju ezpatua herdoildu horri, beti bere ordutan.

Dagoeneko igaro da dena, eta deus igaro ez balitz bezala da».

Bost urte, ordea, apenas igarotzen diren alferrik. Semeak nahia-gu zuen bazterren batean lagunekin jolasean ibili, gurasoengandik ihesi, eta aita bakarrak eta ilun antza zihoa, berriro arlotearen aurrean paratzera ausartu zenean. Ahoa zabaldu baino lehen, urteak lehenagoko enkontrua etorri zitzaion gogora, Borgesen irudipen honekin batera: «Espazioa infinitua bada, espazioaren edozein puntutan gaude. Denbora infinitua bada, denboraren edozein puntutan gaude».

Arlotea infinituaren banku gainean lo egiteko prestatzen ari zen, Coloniako kafe marka baten zigilua zeraman kartoitzat bat ohatzetarako paratuz. Gizonak isilik jarraitzen zuen, han zutik, arlotearen prestaketari begira, baina are isilago gelditu zuen, isiltasun intimo eta hotz batean gordetarik, arloteak begiak bere alde altxatu zituenean. Eskazalearen betarteak halako edertasun aire batek hezeta zirudien, gazteago eta osasuntsuago, sekulan ez zigarro merkerik erre ez ardo eskasik edan izan ez balu bezala. Baina eskazaleak ez zion gizonari arretarik eman, eta ohatzearen prestaketan jarraitu zuen, beste edozein ezezagun aurrean egingo zukeen bezala. Gizona bankuaren muturri batean eseri zen, bat-batean berrogeitabost urteren zamak anaturik. Kalean jendea beso bete opari zebilen eta, errepedean, autoak urduri eta ugari. Eta hura guztia, han, beste aldeko espaloian, agure bat tirriki-tarraka gorantz zihoa bitartean, eta, maki-laren laguntza, liburudendaren erakusleihora iritsitakoan, kristalaz bestaldeko liburu azalei edo agian panpin jostariei begira paratzen zuten unean bertan.

**@ Kilometroak.** Gaur Kilometroaren jaialdia ari da garatzen lurrari. Egunean zehar gertatzen ari denaren bideoak izango dira ikusgai gure webgunean, eguneratzen izango da uneoro webgunea. Halaber, aurtengo eta 1998. urteko (Tolosaldean izan ziren Kilometroak) abestiak eta bideoak ikusgai daude ikusgai.

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)



# ETAk lehertarazi duen bonbak kalte handiak eragin ditu epaitegian

**Tolosa** » Inor ez da zauritu, baina epaitegiko kalteez gain, inguruko etxebizitzetan eta autoetan ere bonbak eragina izan du.

## ERREDAKZIOA

Ostiraleko gauean, 01:15a inguruan Tolosako epaitegian jazotako bonba eztandak kalte handiak eragin ditu Tolosako epaitegian.

Inor ez zen zauritu eztandarekin, baina epaitegiko eraikinean kalte material handiak eragin ditu, kaltetuena auzitegiaren sarrera izan zelarik; hiru metro diametroko zuloa egin du fatxadetan, eraikin guztiko kristalak hautsi zituen, markoak ere kenduz eta epaitegiaren ondoko murrubat goitik beharabota zuten.

Era berean, inguruan aparkatutako 20 bat ibilgailutan eta hainbat etxebizitzetan kalteak eragin zituen (pertsianak hautsi zituen, ate batzuk ere zartatu zituen). Markel Olanoko Gipuzkoako Ahalduen Nagusiak adierazi zuen bezala, «Beotibar frontoiak leherketak izan zitzaizkeen eraginak murrizteko balio izan du». Dena dela, oraindik ere ez dute kalteen balorazioa egin.

## DYAK ETAREN deia jaso zuten

Leherketa gertatu baino 30 minutu lehenago DYAK gizonezko baten dei bat jaso zuten, ETAREN izenean. DYAK orduan Ertzaintzari abisatu zion, jasotako informazioaren berri emateko.

Polizia iturrien arabera, 5 kilo lehergai zituen bonbak eta motxila batean zegoen gordeta. Hain zuzen ere, eztanda gertatu baino ordu baten lehenago motxila hori bilagunek epaitegi atarian utzi zutelaz ziurtatu dute polizia iturriek. Mo-



Tolosako Auzitegiak atzo goizean itxura hau zuen. ESTI EZEIZA

txila hau epaitegiaren aurrealdean utzi zuten. Dirudienez, zaintza zerbitzuko langile bat ere bazen la-

## Polizia iturrien arabera 5 kilo lehergai zituen bonbak eta motxila batean zegoen gordeta

## Atzoko egunean zehar, Ertzaintzako agenteek atentatuaren ingurua hesitu zuten

nean, baina ez zen motxila utzi zutenaz jabetu.

Ertzainek maleta hau non zegoen ikustean, inguruko etxeak hustutzen hasi ziren, eta inguratu egin

zuten eraikina, inor bertara ez hurbiltzeko. Atzoko egunean zehar, bertan gelditu ziren Ertzaintzako agenteak, bertara gerturatu ezin zelarik.

## Etzi berriz Auzitegia martxan

Tolosako epaitegia izandako kalteak direla medio, Joseba Azkarra Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte sailburuak adierazi zuenez, asteartean hasiko dira berriz lanean bertan, «normaltasunera itzuliz». Bitartean, suhiltzaileak arduratzen ari dira eskontroak kentzeko eta ingurua behar bezala uzte.

Kalte materialak oraindik ez dituzte zenbatu, baina horretan ari dira; itxuraz, behintzat, handienak Auzitegiko eraikinekoak dira.

## Atentatuaren gaitzespena

Eraso honen aurrean Tolosako Udaltzarak prentsa ohar bateratu batean eta ezker abertzaleak haien iritzia eman dituzte, biek ere puntu batean adostasuna erakutsiz: kaltetuak izan direnei elkartasuna adieraztea.

Halaber, atzoko egunean zehar atentatua gogor gaitzetsi zuten agintari eta alderdi gehienek, hala nola, arestian aipatutako Joseba Azkarragak, Gipuzkoako ahaldu nagusia den Markel Olanok, Rafaela Romero Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentek, Tolosako Udalean ordezkartzat duten alderdi guztiek (EAJ, EA, PSE-EE, EB-Aralar, PP), eta EAJ, PSE-EE, PP, EB eta Aralarreko buruzagiek, hain zuzen ere.

## » ERREAKZIOAK

«ETA kanpoan eta soberan dugu guztiz»

## Tolosako Udaltzara

«Tolosakoko Udalak, bere izenean eta gure herritarren ordezkari bezala guztiz gaitzesten du Auzitegiko eraso terrorista. Kaltetutako herritar guztiei babesa, elkartasuna eta adiskidetasuna adierazi nahi diegu. ETAk giza eskubideen aurka eta erakunde biolento gisa irauten duen bitartean, egiten dituen ekintzek Euskadiko herritarrek demokrazian eta giza eskubideetan oinarritutako gizarte eraikitzearen duten borondatea eta konpromisoa mesprezatzen dute. Berretsi nahi dugu berriro ere euskal gizartearen aurrean, gure artean ETA kanpoan eta soberan dugula guztiz».

«Ez dute Euskal Herriaren borondatea errespetatzen»

## Jokin Bildarratz

TOLOSako ALKATEA

«Herriaren izenean hitz egiten ari direla esaten duten horiek herriaren kontra jokatu dute berriz. Ez dute Euskal Herriaren eta herritarren borondatea errespetatzen. Horrela ez da Euskal Herria defendatzen. Halako ekintzek, mina, desoreka sortzen dute».

«Gatazkaren gordintasuna agerian da ekintza hauetan»

## Hektor Espin

EZKER ABERTZALEA

«Hasteko, kaltetutako herritarrei elkartasuna adierazi nahi diegu. Bestetik, gertakariak bizi dugun gatazkaren gordintasuna erakutsi du (ilegalizazioak, atentatuak,...). Inoiz baino beharrezkoagoa da gatazka armatua beste parametro batzuetara eramatea. Elkarrizketa bidez lortuko da hori, herri hau aitortuz eta dagozkion eskubideak errespetatuz».

# Leitzako II. Aurrera KEren Eguna, arrakastatsua

## NEREA URBIZU

Leitzan atzo II. Aurrera KEren Eguna ospatu zuten. Iazko eguraldia baino hobexegoa egin zuten, eta ekitaldi guztiak egin ahal izan zituzten. Deigarriena, dudarik gabe, zaldiak eta tirolina izan ziren, eta hura probatu zutenek berriz ere errepikatuko lukete.

Plazako frontoian nesken pala partidak izan behar ziren 11:00etan, baina euriak lurra busti zuenez, zaila zen jokatzeko. Horregatik, kantxan zerrautsa botatzen aritu ziren, horrenbeste ez irristatzeko. Azkenean, berandu hasita baina jokatu zuten.

Zaldien gainean txiki-txikiak

ere igotzen ausartu ziren, eta baten batek negar egin bazuen ere, ausartu ziren altuera horietan ibiltzea. Rokodromoan gora ere txikiak igotzen ahalegindu ziren, eta baita lortu igotzea ere. Hasieran laguntza pixka batekin, eta bukatzean lasai asko aritu ziren eskalataile gaztetxoak.

Arratsaldean *Ingurutxo*a dantzatu zuten karrapen egindako bazkariaren ondoren, eta Incansables txarangaren saioak izan ziren ere tartean, han bertan eta baita kaleak alaitzen ere, poteoaren garaian, hain zuzen. Haur eta gazte askok gozatu zuten Aurrera Egunaz.



Zaldien ibilalditxoak egin zituzten txikiak. Tirolina iaz ere oso arrakastatsua izan zen. N. URBIZU





# «Salbuespen egoerari stop» esan diote hainbat herritan, itxialdiak eginaz

**Politika** » Honekin eta gauzatutako beste mobilizazioekin, azken ilegalizazioak salatu nahi izan dituzte.

## ERREDAKZIOA

Azken denbaldian eman diren ilegalizazioak salatzen asmoz, itxialdiak eta elkarretaratzeak egin dituzte eskualdeko hainbat herritan. Hala, «Salbuespen egoerari stop» esateko asmoz, Villabona, Anoeta, Tolosa, Aduna eta Leaburuko udaletxeetan igaro zuten herenegungo gaua zenbaitek.

EAE-ANV eta EHAK alderdi politikoekin eta Askatasunaren lege kanporatzearen aurrean, ezker abertzaleak «Euskal Herriaren eskubideetan oinarritutako



Leaburun, elkarretaratzea egin zuten hainbat herritarrek. HITZA

marko demokratikoa» aldarrikatu zuten atzo. Izan ere, beraien esanetan, «egun bizi dugun salbuespen egoera honekin Euskal Herriaren

eskubideen aitortzan oinarritutako aldaketa politikoa galaraztea, Euskal Herria zatikatzea, ukatzea eta menpekotasuna irauraraztea

**Villabonan, Anoetan, Leaburun, Adunan eta Tolosan aurrera eraman dituzte itxialdiak**

**Ezker abertzalea: «Euskal Herriaren lurraldetasunaren alde lanean jarraituko dugu»**

dute helburu». Atzo egindako ekintzetan, berretsi zuten ere, «Euskal Herriaren lurraldetasunaren eta eskubidearen alde» lan egiten jarraituko dutela. Atzo goizean zehar hainbat ekintza burutu zituzten eskualdeko herrietan. Hauen ostean, asko eta asko amnistiaren aldeko mugimenduek Bilbon deitutako manifestazioa bideratu ziren.

## Eskualdean egin dituzten ekintzak

Ikaztegiatako herritarrek elkarretaratzea egin zuten atzo eguerdian. Bertan 25 lagun inguru elkartu ziren *Salbuespen egoerari stop* lelopean. Gauza bera eskatzeko asmoz, herenegun iluntzean udaletxean sartu ziren Leaburu-Txaramako zazpi lagun. Aurretik, 20:00ak inguruan elkarretaratzea egin zuten beste zenbait herritarrekin batera.

Anoetakoek, Leaburu-Txaramakoekin antzera, elkarretaratzea egin zuten udaletxean sartu aurretik, eta ondoren, batzuek, gaua bertan igaro zuten. Villabonan ere, iluntzeko mobilizazioen ostean udaletxean igaro zuten gaua zenbait herritarrek. Amezketan itxialdirik egin ez bazuten ere, elkarretaratzea egiteko bildu ziren herenegun.

Tolosan, bertako nahiz Ibarraokoak elkartu ziren protesta egiteko. Gaua udaletxeko Batzar aretoan igaro ostean, atzo eguerdian udaletxe aurrean elkarretaratzea egin zuten.



## Eskualdeko pultsulariak bikain, Gipuzkoakoan

**VILLABONA** » Halterofiliako Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten atzo goizean Olaederra kiroldegian. 15 urte azpikoen eta 17 azpikoen mailan. Bertan Zarauzko, Irungo eta Danana-Olaederra taldeko pultsulariak aritu ziren lehian. 15 urte azpikoetan: 45 kilo baino gutxiago koetan Kellyam Quintana izan zen garaile; 56 kilo baino gutxiago koetan, Adrian Sasiain; eta 77 azpikoetan, Iñaki Zubelzu. Pisu guztiak kontuan hartuta berriz, Adrian Sasiain izan zen irabazlea. 17 urte azpikoen mailan: 62 kilo baino gutxiago pisatzen dutenen artean Iker Hernandez izan zen irabazlea; 69 kilo baino gutxiago koetan, Igor Sasiain eta 94 kilo baino gehiago koetan, Julen Intxausti. Pisu guztien artean, Sasiainek lortu zituen puntu gehien. E.E



## Lan zaila epaileentzat, Abelgorri Lehiaketan

**TOLOSA** » Probintziako XXXIX. Abelgorri Lehiaketa izan zen atzo Tolosako Ferialekuan. Arraza eta kolore ezberdineko baina maila goreneko animaliak izan ziren bertan ikusgai, bai tamainari dagokionez, eta baita kalitateari dagokionez. Gipuzkoako hainbat herritatik hurbildu ziren Ferialekura azientak ekartzeko eta bestetik, Euskal Herriatik ere hurbildu ziren abere hauek ikusteko edota kasu batzuetan erosteko asmoz. Hainbat epaile hantxe aritu ziren animaliak baloratzen, lan zaila beraz atzo izan zutena. Epaileez gain, garbitzaile eta zaintzaile finak aritu ziren behiak ahalik eta dotoreen jendaurrean egoteko, hau da, kalparra moztzen, errapeak garbitzen... Eta ikusleek hori nabaritu zuten. N. URIBU

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



**E Elkarrizketa**

**XUBAN ARME NDARIZ** Pilotaria



# «Buruz burukoetan disfrutatzen dut gehiago, baina orain nazkatuta nago»

**Pilota** » XIX. Joxean Tolosa Txapelketa irabazi du gazteak Nagusien mailan, baita Espainiako Txapelketa ere; «oso gustura» dago lortutakoarekin eta

REBEKA CALVO

Xuban Armendariz gaztea Lekunberrin bizi da, baina lotura estua du gure eskualdearekin; aita elduaindarra du eta osaba Tolosako Kantabriko tabernako jabea da. El duainera gutxitan joaten dela aitortu du pilotariak, hala ere, «urtean bitan edo». Amezketan irailaren bukaeran jokatu du Joxean Tolosa Pilota Txapelketa irabazi berri du Nagusien mailan eta ondoko lerroetan partida hartaz, Espainiako Txapelketaz, non irabazle ateratu zen ere, eta etorkizuneko erronketaz aritu da.

**XIX. Joxean Tolosa Txapelketan nagusien mailan irabazlea izan zinen eta ez edonola, gainera, 18-6 irabazi zenien Onsalori. Gustura al zauden egindako lanarekin?** Noski baietz. Bertan zeuden pilotari guztiak maila ona zuten eta nere aurkariak ere nahiko gogorrak izan ziren.

**Onsalo eta biak nahiko berdinduta egon zineten hasiera batean, baina behin seigarren tantora iritsita partidaren jauna eta jabe izan zinen.**

Lehen hiru tantoak egin zizkidan bai, baina ni nagusitu nintzen ondoren. Gustura geratu nintzen egindako lanarekin. Dena ondo ateratu zitaitzen.

**Espero al zenuen irabazle ateratzea?**

Partida guztietan bezalaxe; ondo jokatu zergo badakizu irabazi ahal duzula, baina beti daude faktore gehiago.

**Zorteak izan zuen zerikusirik, hortaz?**

Ez, ez. Ondo egindako lana, bai, baina zorterik ez.

**Joxean Tolosa Txapelketara Espainiako txapeladuna zinela iritsi zinen, segurtasuna eman al zizun horrek?**

Ez gehiegi, txapelketak nahiko antzekoak dira, baina horrek ez du ezer argitzen. Espainiako txapelketan buruz buruko eta binakako partidak jokatzeko dira eta guztien zenbaketarekin irabazten duenak irabazten du txapelketa.

**Hori federazioen artekoa izan zen, baina Espainiko Kluben arteko Txapelketa ere badago eta bertan ere izan zinen.**

Hori lehenago egin zen, horretan finalerdietara iritsi nintzen, baina taldeko lehena izan arren galdu egin nuen.

**Zein maila dago Espainia aldean? Ba al da gogoratu beharreko pilotariren bat?**

Andaluzian, Madrilen... Espainia aldean jokatu ditugu partidak eta egia esan hemengo pilotariak dira. Hango federazioek fitxatzen dituzte, baina hemengoak dira. Baten bat badago hangoa, baina ez gehiegi, ez pentsa, orokorrean ez dute hemengoen maila.

**Gustura ibili al zinen Espainiako Txapelketan?**

Etxean jokatu partidak gusturaz jokatu nituen, baina kanpora joatea ez dut horren gustuko.

**Hemengo maila berdintzea zaila baita...**

Hemengo txapelketan dagoen maila ez da inon erreplikatzeko, hori

horrela da. Kanpoan afizioa badago, hala ere.

**Nola entrenatzen zara?**

Astean bitan pilotan jokatzeko naiz, eta beste bitan fisikoa lantzen dut. Astebukaeran partida dudanean fisikoa pixka bat gehiago egiten dut. Behar baino gutxiago lantzen dut, hala ere.

**Fisikoa oso garrantzitsua da, teknika bezain garrantzitsua?**

Biak dira garrantzitsuak, baina teknika gehiago, behar bada. Egia

**Nire ustez lehen pilotan gazte jende gehiago aritzen zen, baina orain jaitsi egin da**

**Gazteek profesioletara iristeko aukerarik ez dutela izango ikusten dutenean utzi egiten dute**

da partidak oso luzeak izaten direnean nabaritzen dela fisikoa landu duzun ala ez; hasieran gogotsu hasten zara, baina partida aurrera joan ahala, partida gogortzen denean, indarra galtzen duzu.

**Ezkerra izatea eta jo handia duzula, horixe da zutaz gehien nabarmentzen dituzten ezaugarriak.**

**Ados al zaude horrekin?**

Ez dakit, baina eskubiarekin behintzat nahiko pata ibiltzen naiz. Dezente hobetu dut, lantzen ere ibili naizelako. Ezkerra izatea beti ez da ona izaten, gainera, finalerdietan adibidez eskuinera bidaltzen zizkidaten pilotak, sakeak zabaleraz bidaltzen zizkidaten eta.

**Aurkariaren ahulguneak ezagutzeara ere oso garrantzitsua da eta...**

Noski, nik gauza bera egiten dut nire aurkariekin.

**Zer ari zara lantzen une honean?**

Aurre aldean aritzen naiz orain; gantxoak, bi paretak... eta horrelakoak lantzen. Atzetik ematen ibiltzen gara entrenatzen aritzen garenean, eta beraz, hori nahikoa landu dut jada. Eskubia eta aurrekaldea lantzen ari naiz orain. Esku batekin bakarrik ezin da deus ere egin, bi eskuekin ondo jolastera ezinbestekoa da.

**Zer duzu gustuko buruz burukoak ala binakako partidak?**

Egia esan buruz burukoarekin nahiko nazkatuta nago. Txapelketa dezente irabazi ditut eta deusestarako ez duela balio iruditzen zait. Oraintxe nahiago dut binaka jolastu, egia esan buruz burukoan gehiago disfrutatzen dut, dena buruz buruzkoa izango baliltz hobeto. Binakakora joaten naizenean, hala ere, nahiko galduta ibiltzen naiz hasieran.

**Zein da gustuko duzun pilotaria?**

Irujo, zalantzarik gabe, denetik egiten duelako. Ezin da aurretik jakin zer egingo duen. Edozer egiteko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak ditu. Abel Barriola ere asko gustatzen zait, aparta da, pilotalekuan leku guztietan dago.

**Enrike Galarzarekin entrenatzen ari zinela egin diguzu elkarrizketa hau egiteko tartea, entrenamenduetan jo eta su ari zara.**

Lanean ez nagoenean entrenatzen aritzen naiz eta etorkizunean profesional bezala aritzea gustatuko litzaidake, pilotari guztioi bezalaxe. Une txarrak ere izaten dira, eskuetatik gaizki zaudenean, adibidez.

## Etxeko olioia eta hondakin arriskutsuak biltzeko aukera, asteartean

**Zizurkil** » Bilketa ibiltaria izango da goizez; hala ere, egunero Udal bulegoetan uzteko aukera ere badago.

ERRDAKIZIOA

Erabilitako etxeko olioia eta hondakin arriskutsuak uzteko hainbat aukera eskaintzen ditu Zizurkilgo Udalak. Horien artean, bilketa ibiltaria dago, hau da, egun eta ordu zehatz batean Zizurkil goiko kaleak zeharkatu eta Pasmus plazan egoten dena.

Hain zuzen, heldu den urriaren 8an, asteartean, izango da horretarako aukera orduzko honetan: Zizurkil behean, 09:00etatik 10:15era eta Zizurkil goian 10:30etik 11:00etara.

Hala ere, Udalak jakitera eman duenez, orain aukera dago edozein egunetan udaletxean zein Aurrerako bulegoetan jarri dituzten kaxetan uzteko bulegoak irekita dauden bitartean.

## T Telefonoak Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Iruia.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leizta.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

**Tolosa.**

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

**GARRAIOAK.**

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leiztaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leizta):** 608 873016

**BESTERIK.**

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Lurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474



20°  
15°

GOIZA OSTARTEAK  
ARRATS.OSTARTEAK  
BEROENA 21°  
HOTZENA 15°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **Ugarte.** Egitaraua: 11:30ean meza nagusia, jarraian txakolin probaketa, Laja eta Landakandaren trikiti saioa, 18:00etan Irigoien, Ostolaza, *Izeta II.a*, Goenatxo harri jasotzen, ondoren Ingurutxo, 20:30ean sagardo probaketa, txerriaren zozketa, eta Laja eta eta Landakandaren emanaldia.

### Deialdiak

■ **Ikaztegieta.** Jubilatuentzat bidai bat Gasteizera antolatuta dute hilaren 9an. Irteera 09:00etan, udalaxe ondoko zubitik. Izena emateko epea: urriaren 7a. Gosalduta ondoren Gasteiz, Andra Mari Plaza, Florida Parkea... ikusiko dituzte. Prezioa, 20 euro.  
■ **Tolosa.** Iturriza jubilatuta elkarteak (Euskal Herria plazakoa) Iratxera irteera antolatuta du urriaren 30ean. Bazkaria Iratxe hotelean, dantzaldia eta opari zozketa izango da. Izen-ematea, elkartearen 34 eurotan (36 ez bazkideek).

### Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan hiru filma ikusgai: *Street dance* 17:00etan; *Dejad de quererme* 19:30etan eta *Venganza*, 22:00etan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.  
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.  
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.  
**BIHAR**  
■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan iritziaren erantzukizunik.

Sukru Karakus artista turkiarraren bi koadro enkantean saldu ziren herenegun Aranburu jauregian: lehenengoa 500 eurotan erosi zuen Tolosako Udalak; bigarrena, berriz, 300 eurotan erosi zuten.

# Elkartasunaren aldeko enkantea

## ESTI EZEIZA

**A**rteak eta elkartasunak bat egin zuten herenegun iluntzean Aranburu jauregian. Bertan, Sukru Karakus artista turkiarraren bi koadro enkantean saldu ziren.

60 lagun inguru hurbildu ziren jauregira. Batzuk enkantean parte hartzeko asmoz, eta beste batzuk berriz, Iñigo Agirre musikariaren emanaldia gozatzeko asmoz. Ekitaldiari gitarra jotzaileak eman zion hasiera. Euskal abesti zaharrek jo zituen gitarra klasikoarekin. Giroa lasaia bazen ere, abesti bakoitza amaiztean jendearen txalo zaparradek ingurua astoratzen zuten. Kontzertu txiki hori amaitsu ostean enkanteari ekin zioten.

Koadroen egileak hauen nondik norakoak azaldu zituen. *Bakea* bezala izendatu ditu artelanak, eta arkatzen eginda daude. Bi margolanen hasierako salneurria 180 eurokoa izan zen.

Irene Larraza Udaleko kultur teknikariak zuzendu zuen enkantea. 180 eurotatik hasi ondoren eskaintza, salneurria igoz joan zen. Hala, lehen artelana Tolosako Udalak erosi zuen 500 euroren truke. Honen arduradun izan zen Andoni Iturzaeta kultur zinegotzia. Bigarrena berriz, prezio baxuagoan erosi zuten. Honengatik 300 euro ordaindu zuten.

Ekitaldiak iraun zuen denbora horretan, askok eta askok, Sukru Karakusen artelanak ikusteko aprobetxatu zuten.

## Elkartasuna etorkinekin

Enkante honetan saldu diren artelanekin batera SOS Arrazakeria elkarteari laguntzeko era-



60 lagun inguru elkartu ziren Aranburu Iñigo Agirreraren kontzertua entzutera, eta enkantean parte hartzera. E. EZEIZA

biliko da. Ekimen honekin jendea sentsibilizatu nahi dute beste kulturekiko. Izan ere, artista turkiarraren esanetan, «geroz eta jende gehiago dator kanpotik, eta elkarri lagundu egin beharra daukagu bakea nahi baldin badugu». Baina beste kulturekiko ez ezik, artearekiko ere sentsibilizatu nahi du jendea.

Enkantea herenegun izan bazen ere gaur arte ikusgai dira artista turkiarraren lanak. *Turkesa* izenburupean bildu ditu bere azken artelanak.



zure-irragarkia tolosaldetik eta leitzaaldetik euskal herrira

tolosaldeko hitza. iragarkilaburrak.com

iragarkia jartzeko: www.tolosaldeko-hitza.iragarkilaburrak.com/ 943-65 56 95/ Araba etorb. 5 atzea • Tolosa / Herriko plaza 1 • Leitza webgunean, ostiralero Euskal Herri osoan paperezko edizioan eta HITZA egunkariaren argitaratuko da

